

Gure arteko bizikidetzaren alde lanean

Areatza herri txikia da eta denok elkarrekin bizi gara. Horregatik, egunerokoan suerta daitezkeen egoera ezberdinek eragina daukate guregan eta ingurukoengan: herrian aspaldi errotuta daudenek, gertatzen ari diren aldaketek eta baita gertaera isolatuek. Horiek guztiak direla-eta, txarto ulertuak, ezberdintasunak eta, kasurik txarreanean, bazterkeria ere sortzen dira. Horregatik da hain garrantzitsua gure arteko bizikidetzaren lantzea.

Eskolan, etxeetan, kalean, Udaletxean edo lagunartean elkarbizitzan bizi gara eta gure arteko bizikidetzaren etengabe garatzen doa. Bizikidetzaren osasuntsua izan dadin, kultur aniztasuna, heziketa, lan kooperatiboa, enpatia, gatazken kudeaketa, berdintasuna, generoa, sentibilizazioa eta baloreen hezkuntza lantzea behar dira.

Areatzan elkarrekin bizi garen arren, oro har, aitortu beharra dago, ez gara beti elkarbizitza positiboan bizi. Askotan falta izan dira (eta oraindik ere badira) elkar errespetua, enpatia eta elkar ulertzeko benetako asmoa, alegia, ni izateari zertxobait uko eginez eta bestearengan gehiago pentsatuz. Bizikidetzaren on bat lortu nahi baldin badugu, guztion esku dago!

Hori dela eta, Areatzako Udala ordezkatzaren duten alderdi politikoek bizikidetzaren berradiskidetzeari laguntzeko programa abian jartzea adostu dute, bestelako alderdi politiko eta sozialetara zabaltzeko nahiaz. Egitasmo hau Baketik Fundazioaren laguntzaz garatzen ari da.



Zuhurtasuna eta sakontasuna

Bizikidetzaren berradiskidetzera bideratutako programa partekatua izan behar du, daukan helburua lortzeko. Horretarako, programak zuhurtasun demokratikoaren irizpidea izan behar du. Errealismoaren zuhurtasunak eta adostasun sozialek ahalbidetzen dute aurrera egitea. Hori dela eta, bere funtsean eta edukian sakontasun etikoa ere be-

har du. Bi irizpide horietatik abiatuta, urteko helburua bizikidetzaren berradiskidetzarako ekarpen partekaturako eremua adostea izango da.

Besteak beste, bizikidetzari eta berradiskidetzeari buruzko ikastaroak bideratuko dira udal eta herri mailan; eta dagoeneko esparru desberdinetan dauden egitasmo desberdinekin uztartuko da proiektu hau.

Objetivos para la convivencia

El Ayuntamiento de Areatza y la Fundación Baketik están trabajando para desarrollar en nuestro pueblo un programa de contribución a la reconciliación de la convivencia, que se extenderá hasta la próxima primavera y está sujeto a cuatro ámbitos de actuación: político, ciudadano, educativo y divulgativo. El pasado 12 de noviembre se celebró el primer encuentro, con la participación de los concejales de EAJ/PNV y BILDU, los dos partidos con representación en el Ayuntamiento, a los que se sumaron antiguos concejales de Areatza. Todos han coincidido en destacar como "muy positiva" esta primera acción, ya que son conscientes de que un programa orientado a la convivencia debe ser ampliamente compartido.

El programa de trabajo para fomentar en Areatza una cultura de convivencia y reconciliación se sustenta en los siguientes pilares:

- > Respeto a la dignidad humana y la aceptación mutua en la diferencia.
- > Consolidación de la paz de un modo irreversible y promoción de los derechos humanos.
- > Desarrollo de una memoria crítica del pasado, que ofrezca solidaridad a las víctimas.
- > Humanización del lenguaje, las actitudes y las decisiones que afectan a la convivencia.
- > Educación preventiva en bases éticas y democráticas compartidas.

Peatonalizaciones: Continúa el debate

El tema de la peatonalización sigue de plena actualidad en nuestro pueblo y no cabe duda de que ha generado un animado debate entre nuestros vecinos y vecinas, con opiniones para todos los gustos.

Hace ya algunos años que se puso en práctica un sistema de accesos al Casco Histórico. Durante estos años hemos adquirido una experiencia muy importante, tanto propia como ajena (comprobando otros modelos y conociendo otros ejemplos de peatonalizaciones) y al mismo tiempo hemos recogido mucha y muy útil información aportada por los habitantes de Areatza en las distintas consultas al respecto que se ha realizado a la población, incluyendo buzoneos, carpas informativas, recogidas de firmas y otras iniciativas destinadas a conocer la opinión de los y las bilaroztarras. Algunas de las medidas propuestas ya se han puesto en práctica, como son el cierre por el cantón que da a Errukiñe o la posibilidad de acceder a una tarjeta de emergencia.

Con todo ello, creemos que el objetivo de la peatonalización y el sistema son válidos, pese a que este último tenga sus imperfecciones (averías, caídas de tensión, uso de tarjetas perdidas previamente desprogramadas, etc.). Se han planteado algunas alternativas pero no resuelven el problema. Lo que está claro es que no podemos disponer de vigilancia las 24 horas del día y que mantener el núcleo urbano sin coches es una necesidad no solo para el disfrute de la gente, sino también para garantizar la seguridad ante siniestros o incendios y permitir el acceso de ambulancias, emergencias, etc.

Por eso, estamos persuadidos de las bondades del proyecto de peatonalización, que debe implantarse sin medidas traumáticas. En las últimas semanas se han producido fallos técnicos en el sistema, que se están resolviendo. Pedimos disculpas por ello y también rogamos un poco de paciencia. Pero también hay que decir que la colaboración ciudadana es imprescindible. Debemos insistir y, si se quiere, denunciar algunos comportamientos reiterantes y actuaciones antisociales que se están produciendo, incumpliendo lo estipulado. Por ello, la Ertzantza tiene instrucciones de sancionar los incumplimientos. Este aviso no supone amenaza alguna sino más bien un recordatorio de la necesidad de respetar la sana convivencia en Areatza con opciones para todas las personas.

Areatzako Udala

Oinezkoentzako guneak: eztabaidak jarraitzen dau

Oinezkoentzako guneen gaiak puri-purian jarraitzen dau gure herrian; zalantza barik, eztabaida bizia piztu da gure herritarren artean, eta gustu guztietarako moduko eritxiak be egon dira.

Orain dala urte batzuk, Herrigune Historikorako sarbideen sistema ipini zan praktikan. Urteotan sano esperientzia garrantzitsua eskuratu dogu, geurea zein besteena (oinezkoentzako guneen beste eredu eta adibide batzuk ezagutuz eta egiaztatuz), eta, aldi berean, herritarren artean gai honen inguruan egin diran konsultetan, Areatzako bizilagunek emondako informazio asko eta sano erabilgarria jaso dogu. Besteak beste, informazioa sartu da postontzietan, informazio-karpak ipini dira, sinadurak batu dira eta Areatzako bizilagunen eritxiaren barri eukiteko beste hainbat ekimen egin dira. Proposatutako neurrietako batzuk martxan ipini dira daborduko; esate baterako, Errukiñera emoten dauen kantoiaren itxierea edo larrialdietarako txartela eskuratzeko aukerea.

Modu horretan, uste dogu oinezkoentzako guneen helburua eta sistema baliagarriak dirala, sistemeak akatsak euki arren (matxurak, tensino-beherakadak, alde zurretatik desprogramatutako txartel galduen erabilera eta abar). Alternatiba batzuk planteatu dira, baina ez dabe arazoa konpontzen. Argi dagoana da ezin dogula euki 24 orduko zainketarik, eta herrigunea auto barik eukitea beharrezana dala, ez bakarrik jentearen gozamenarako, ezpada istripuen edo suteen kontrako segurtasuna bermatzeko be bai, eta anbulantziak, larrialdietarako ibilgailuak eta abar pasau ahal izan daitezkan.

Hori dala-ta, ziur gagoz oinezkoentzako guneen proiektuak onura asko eukiko dauzela, eta neurri traumatiko barik ezarri behar dala. Azken asteotan, akats teknikoak egon dira sisteman, eta akats horreek konpontzen gabiliz. Parkamena eskatzen dogu, eta pazientzia apur bat be eskatzen deutsuegu. Baina argi itxi behar da herritarren kolaborazioa ezinbestekoa dala. Esan behar dogu, eta, gura bada, salatu behar dogu, zenbait jarrera antisozial errepikatu dirala, adostutakoa urratuz. Hori dala-ta, Ertzaintzak arau-hausteak zigortzeko agindua dauka. Abisu hau ez da inongo mehatxua; beste barrik gogorarazi gura doguna da Areatzako bizikidetzak egokia errespetatu behar dala, eta persona guztiek euki behar dabezala aukerak.

Areatzako Udala



Areatza, Nordic Walkingagaz

Areatzak Euskadiko Nordic Walking Zentro-etan sartu gura dau. Udalak laguntza eskatu deutso Osakidetza - Osasun Sailari, proiektu hau garatu eta, modu horretan, bizimodu osasungarriak sustatzeko.

Nordic Walking edo Ibilketa Nordikoa dala-koak ez dau bakarrik hanken ekintza eskatzen, ibilketa normalean lez, ezpada gorputzaren goiko partea be bai. Kirol hau jente eta adin guztietarako da egokia, eta erraz eta arin ikasten da. Ibilten gabilzan bitartean, bastoiak baino ez dira erabili behar, modalidade honetarako beren-beregi diseinutako bi bastoi berezi, Euskadiko merkataritza-guneetan eskuratu leitekezanak.

Nordic Walking mobimendu barria da gorputz osorako; atsegina eta sano eraginkorra da. Modu leun baina eraginkorrean jokatzen dau, eta hobetu egiten dauz giharren indarra, sistema kardiobaskularra, koordinazioa eta mobikortasuna. Gainera, egoera fisikoa hobetzen bada be, kirol hau egiterakoan ez da igarten neke-sensazio handirik.

Areatzarako proposamena 4 ibilbide sustatu gura dira, zailtasunaren arabera diseinutakoak –datozen urteotan, ibilbide gehiago egin ahal izango dira-. Bide horreek udal igerilekuen eraikinean egongo dan zentrotik abiatuko dira; izan be, eraikin horrek gitxieneko instalazioak daukaz aitatutako zentroa bere baitan hartzeko.

Informazio gehiago jasotzeko:

www.nordicwalkinggunea.net

Regulación de la venta ambulante en Areatza

El Ayuntamiento aprobará en breve una nueva ordenanza reguladora de la venta ambulante. El motivo es que la ordenanza vigente hasta la fecha había devenido irregular al infringir una nueva directiva europea reguladora del mercado interior.

El Ayuntamiento no puede impedir la venta ambulante, puesto que se considera una modalidad legal de ejercicio del comercio, y no puede ser impedida la libre competencia. Sin embargo, sí que debe ser realizada con todas las garantías tanto sanitarias como fiscales, y también de orden social.

En ese ámbito, el Ayuntamiento sí tiene potestad para actuar.

La nueva ordenanza municipal va a regular las condiciones en que debe practicarse y los requisitos que deben cumplir los vendedores. Estos requisitos deberán ser validados por el Ayuntamiento, o en su caso inspeccionados.

Una vez aprobada inicialmente esta ordenanza, se someterá a información pública para que cualquier persona interesada la pueda examinar y poner alegaciones, si lo considera oportuno.

Bilaroztarron hitza

El espacio informativo ocupado por estas palabras será a partir del próximo número un espacio para ti, para tu asociación, para tu club, para tu cuadrilla, para tu partido político... A través de Areatza Lantzen Barria puedes, a partir de ahora, opinar, aportar o comentar cualquier cuestión relacionada con nuestro pueblo, con Areatza. Lógicamente, no aparecerán en la revista aquellas car-

tas que contengan insultos, ataques personales, datos que puedan afectar a terceras personas, etc.

Las cartas irán firmadas (a título individual y/o colectivo) y contendrán como máximo 1300 caracteres (espacios incluidos). Podrán escribirse en euskara o castellano, y así serán publicadas. Queda abierta, por tanto, esta nueva vía de expresión y participación ciudadana.

Bidali ezazu zure idatzia helbide honetara: areatzalantzen@bizkaia.org

Areatzako Euskara Ekintza Plana 2014-2017

Azken hilabete hauetan, Udala Areatzako 2014- 2017 urteetako ekintza plana zehazten aritu da, AHIZE (AEK) taldekoen laguntzarekin.

2013 urte hasieran, Areatzan euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko asmoz abiatutako plan estrategikoa burutu zan. Bertan, Areatzako euskararen egoera zehaztu zan diagnostiko bat eginez, eta horren ondorioz aurrerantzean lortu nahi diran helburuak zehaztu ziran.

Oraingoan, helburu horiek ardatz harturik, datorren lau urteetan egin beharreko bidea finkatzea da xedea. Lan horretan, herriko eragile ezberdinak parte hartu ahal izan dabe, eta herrian dagozan sentsibilitate, iritzi eta ikuspuntu ezberdinak kontutan hartu dira plana zehaztu ahal izateko.

Euskara zeharkako gai bat dala kontutan izanik, 2014 eta 2015erako plan zehatz bat egin da, herriko arlo ezberdinetan zein pausu jarraitu behar diren azalduz, alegia, aisia eta familiaren arloetan, merkataritzaren arloan, eta kultura eta kirolaren arloetan ere. Printzipioz plan zehatza 2014 eta 2015erako egin bada ere, 2016 eta 2017 urteetarako planaren ardatz nagusiak ere irudikatu dira.



Gestión sostenible del suelo

Gorbeialde y el Instituto Vasco de Investigación y Desarrollo, Neiker trabajan para impulsar implantación del modelo de silvopastoralismo que combina árboles, pasto y ganado.

En el contexto del desarrollo sostenible, los sistemas silvopastorales pueden suponer un beneficios económico, gracias al carácter multifuncional de un método que incide en la productividad a corto plazo del pasto. Una segunda ventaja es la ambiental, ya que se reduce el riesgo de incendios forestales y se favorece el incremento de la biodiversidad. Por último, está el beneficio social, ya que es una actividad económica que genera riqueza, empleo y asentamiento poblacional. Eso sí, Gorbeialde y Neiker también son conscientes de que se trata de un método de producción complejo, que necesita de un sistema de gestión adecuado.

Adoquinado en Askatasuna

Es de todos conocido el mal estado en que se encuentra el tramo adoquinado de la calle Askatasuna, cuyo hundimiento y el consiguiente empeoramiento de la plataforma de rodadura ha venido provocando la formación de charcos cada vez que llovía. El Ayuntamiento ha elaborado un proyecto de reparación que finalmente va a propiciar la retirada del adoquinado en dos tramos concretos, farmacia/areatzagane e Iglesia/BBVA, manteniendo el diseño de plaza en el frontal de la iglesia, dejando esta zona con su carácter original, pero reparando, eso sí, las zonas que estén dañadas. Esta obra, además de corregir el mal estado de la calzada, obtendrá una durabilidad muy superior a la actual. Por eso, teniendo en cuenta el gran tráfico pesado que soporta la calzada, se están estudiando

también medidas para que los vehículos ralenticen la velocidad en esa zona asfaltada.

La previsión municipal es que las obras puedan comenzar lo antes posible, para lo cual el Ayuntamiento ha solicitado una ayuda al Departamento de Vivienda de Gobierno Vasco, en virtud de la mejora de la accesibilidad que se va a producir. En cualquier caso, con o sin subvención, el Ayuntamiento acometerá la obra e incorporará su costo al presupuesto de 2014 como obra prioritaria.



Herritarrak Areatzako jaietan murgildu ziren

2013ko jaieak partehartzaileak izan dira, zalantza gabe. Ganera, adin guztietako jendeak hartu eban parte. Hor-taz, Jai batzordetik eta udaletik eskerrak emon gura da-be parte hartu daberen herritar guztiei.

Txapelketek betiko arrakasta eduki eben eta eskupelota, pala eta zestapuntako partiduetan frontoia jendez beteta egon zan. Umeentzat egindako ekintza desbardineta be parte hartze handia egon zan. Horretaz aparte, progra-man sartutako ekintza barriak jendearen gustokoak izan ziran, hala nola zubizarra plazako kontzertua, euskal kan-tak, jaien agurra, etabar.

Baina bada ekintza bat bereziki aipagarria dana: desfilea. Aurten, danborradak, majoretak eta herriko 12 koadrilek parte hartu eben eta suei emondako formato barriarekin batera, desfile ikusgarria lortu zan danon artean.

Gogorarazi nahi dogu, baita be, Jai Batzordean aritzeko aukera zabalik dagoela areatzar guztientzat. Anima zai-tezte datorren urteko jaien antolaketan parte hartzeko!



JAIETAKO KONTUAK

Sarrerak

Udala	28.000
Publizitatea	4.940
Pelota Partiduak	820
Zapiak	1.587
Txosna	2.911
2.012ko hondarrak	550

GUZTIRA

38. 808

Irteerak

Musika	21.219
Suak	4.235
Ikuskizunak	3.807
Bestelakoak	3.065
Tailerrak	2.134
Pelota	2.280
Luntxa	1.152
Txapelketak	815
GUZTIRA	38.707

Feminismoaren erronkei eusten



Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna izan zan joan zan azaroaren 25ean eta horren harira Arratiako emakumeen taldeek, talde feministek eta bertako herri desbardineta udalen artean hainbat ekintza antolatu ziran.

Areatzan, oso berbaldi interesgarria eskaini eban Beatriz Azpirik, "Feminismoaren erronkak XXI. Mendean" lelopean. Saio hartara, hainbat pertsona gerturatu zan Emakumeen Foroaren gelara feminismoak izan duen bilakaeraren gainean hausnartzeko eta aurrera begira dituen erronkan aztertzeko.

Horrez gain, azaroaren 25ean Igorren konzentrazioa egin zan eta hainbat pertsona bildu zan. Iaz bezala Martxa Morea antolatu zan, aurten Arratiako emakume talde eta talde feministek proposatuta, Abortatzeko eskubidearen aldeko aldarrikapenari helduz.

Gure musikarien txotxongilo erraldoiak, Areatzako tailerraren emaitza ederra

Las marionetas de nuestros grandes músicos están ahora de gira, pero pertenecen a Arratia y volverán aquí para quedarse y formar parte de nuestras celebraciones

Maurizia, Leon eta Fasio, Arratiako musikari handiak txotxongilo erraldoi bihurtutako bederatzi eguneko tailerra antolatu da Areatzan azaroan zehar, Areatza, Artea eta Igorreko udalek, elkar eta auzolanean egindakoa.

Jendeak oso ondo erantzun dau. Azaroaren 1a eta 10a bitarteko bederatzi egun hauetan 30 bat pertsona aritu da auzolanean, horietatik 17 Areatzakoak. Haiekin batera, Arratiako 3 pertsona, Bizkaiko hainbat herrietatik etorritako beste 10 eta Errioxatik etorritako bikote bat be bai.

Tailerrean egiten zen lana ikusteko, bertatik pasatu dira Maurizia, Leon eta Fasioren familiakoak eta baita antzerkigintza eta musika arloko hainbat eragile ere. Haiek alaitu dabe giroa arratsaldero, alboka, triki eta panderoko zuzeneko doinuekin.

Azaroaren 10ean marioneten aurkezpena egin zan Areatzan eta emaitza ikusgarria izan da, txotxongiloen bizitasuna eta naturaltasuna txalotzeko modukoa baita.



Maurizia, Leon eta Fasioren senitartekoek be tailerrean egindako lana txalotu eben, eta pozik agertu ziran txotxongiloekin.

Bertako taldetxo batek txotxongiloak manipulatzeko ikasi dau eta aurrera begira ikuskizuna prestatu eta abiatzeko planak egiten dihardute.

Gainera, partehartzaileek pertsonaia gehiago sortzeko gogoz dabilta eta horrek argi erakusten dau sortutako konplizitatea, ikasteko gogoia eta taldean egindako lana. Izan ere, tailerra zuzendu daben "Les Grandes Personnes" konpainiako Fleur Mary eta Jeromen-en esanetan: "Ezinezkoa da lan hau bakarka egitea, txotxongilo erraldoia sortzeko lan-talde gogotsua ezinbestekoa da", eta horretan ezin hobeto aritu dira Areatzan lanean. Gainera, partehartzaileek pertsonaia gehiago sortzeko gogoz dabilta. Hurrengo asteotan balorazio batzarra eta aurrera begira eman beharreko pausak zehazteko batzarra deituko da.

Arratiarentzat

Arratian egindako marionetak eta Tolosan egingo diren beste bi txalapartarien marionetak, 2014ko udan Euskal Herritik biran ibiliko dira kale antzerkiko ikuskizun erraldoi baten, gure herrian egindako lana era-



kusten eta behin bukatutakoan Arratiara bueltatuko dira, gurera alegia. Hau da, Arratiako hiru musikari handiak marioneta erraldoi bihurtuta, Arratian sortu eta gordeko dira, bertan eta benetako altxorra guztien gozamenerako.

II Mendi Martxaren arrakasta

400 mendizale baino gehiago animauran, eguraldiak lagunduta, Areatzako II Mendi Martxan parte hartzeko. Hauen artean, bertako asko egon ziran. Danak pozik agertu ziran ibilbideagaz eta antolakuntzak egindako lanagaz, ibilbidea ondo seinalatuta egon zalako, horniketan aproposak ziralako eta amaierako parrillada be ederto urten zalako. Hortaz, badira arrazoiak datorren urtean be errepiketako.



Parte-hartze polita | Errefrau Poteoan

Pasa den Azaroaren 16an, Areatzako lehen errefrau poteoa burutu zan herrian, Areatzako Euskara Batzordeak antolatuta. Horren helburua, Areatzan euskararen erabilera sustatzea izan zan, eta zehazki herritarrak gure herrian bertan egiten diran ekintzak euskaraz egin ahal dirala konturatzea, euskaraz arituz eta euskaraz gozatuz hain zuzen be.

Egun zoragarria izan zan. Hor ibili ziran bi ordu eta erdiz bertsoan Ibon Ajuria eta Arkaitz Estiballes bertsolariak; goizaldeko 3:30ak arte kantuan aritu ziran Taberna Ibiltariko kideak be bai... eta garrantzitsuena, herritarren parte hartzea aipatu beharra daukagu, izan be 19 taldek hartu eben parte eta baita bakar-kako hainbat lagun. Lehia hain izan zan ederra, azkenean bi talderen artean azken final bat burutu behar izan ebela. Irabazleek herriko hotelak dohainik



emandako sari bat eskuratu eben eta parte hartu eben gaztetxoek liburu bana eskuratu eben be bai. Lehiaketaren ondoren, herriko plazan txorizo eta urdaiazpiko goxoak jateko aukera izan zan.

Aipatzekoa eta eskertzekoa da herritarrak ekitaldi hau martxan jartzeko egindako lana, ideia sortzeaz gain, prestatze-lanetan ere aritu baitziran, antolakuntza lanak edota plazan txitxiburduntzia prestatzen. Datorren urtean barriro!



Euskal Jaiarekin ezkontuta

Euskal Jaiarekin ezkontuta dago Areatza, jada gure herrian antolatzen den ospakizun berezietarikoa delako, eta aurten ezkontzaz hitzegiteak badauka zentzua. VI Euskal Jai honetan, euskal ezkontza izan baita jorratu dan gai nagusia.

Areatzako 100 pertsona inguru ibili ziren lanean joan zan urriaren 5erako programaturako ekintza guztiak aurrera eroateko, eta lana bikaina izan zan. dana ederto urten zan eta jendea bapo disfrutau eban.

Datorren urteari begira, 2014ko Euskal Jaia prestatzeko eta gure ohiturak berreskuratzen jarraituteko, ideiak, gaiak, proposamenak lantzen segidu behar dogu danon artean. Horretarako 2014ko hasieran deituko dira aurreneko batzarrak. **Adi egon eta parte hartu!**

Productores de Arratia se muestran en Etxebarri

Las explotaciones agrícolas y ganaderas de Arratia han encontrado un buen escaparate en el pueblo de Etxebarri, donde hace poco comenzaron a exponer y vender sus productos una vez al mes, el primer domingo de cada mes, en seis puestos que se instalan en la plaza del Ayuntamiento.

Esta iniciativa nace de la asociación de desarrollo rural Gorbeialde, con el apoyo del Ayuntamiento de Etxebarri, y Gorbeialde trabaja para extender la idea a otros pueblos como Basauri o Galdakao.

Los productores que acuden a Etxebarri irán rotando, para dar la oportunidad a más de seis de ellos. El próximo mercado se celebrará el día 5 de enero, justo antes de Reyes.

Agenda kulturala



Abenduak 20

Buruko pañeluak jartzen ikasteko tailerra.

17:00etan ludotekan. 2002-2006 urte bitartean jaiotakoentzat.

Abenduak 23

Gure aitona-amomengandik taloak egiten ikastera

11:00tan txikientzat eta 12:15etan helduentzat. Frontoian. Ludotekak antolatutako ekimena. Informazio gehigarria, bertan topa daitekeez aparteko programan.

Abenduak 24

OLENTZEROn etorrera.

17:00tan Herriko Plazan. Guraso Elkarteak antolatuta.



Abenduak 26

Txotxongilo antzerkia

18:30etan udal-aretoan "Ipuin Magikoak".

Abenduak 28

Ping-pong eta dardo lehiaketa

Gaztelekuan izango da, eta horren atzetik merienda afaria.

Abenduak 29

PINera irteera

Gaztelekutik abiatuko dira 12-17 urte bitarteko gazteak. Hitzordua 10:00etan izango da, bus paradan.

Abenduak 30

Urte Amaierako Kontzertua.

19:30tan eleizan. Areatzako Musika Bandaren emanaldia berezia izango da, musika gozatzeko aukera ederra.

Urtarrilak 3

Banakako trapuzko pelota maratokia

18:00etan frontoian. Areatzako Eskupelota alkarteak antolatuta. 11 urtetik gorakoentzat. Honi buruzko informazio gehiago herrian aterako den aparteko programan.

Recordatorio

> La ludoteca de Areatza abrirá sus puertas los días 23, 26, 27 eta 30 de diciembre y los días 2 y 3 de enero, de 11:00 a 13:30 horas. En la propia ludoteca se puede consultar sus actividades.

> Quienes tengan interés por conseguir entradas para el PIN, deberán apuntarse en la ludoteca y/o gazteleku.